

**GAUR ERE ZURE SMS-RIK EZ**

Garazi Ansa Arbelaitz, 16 urte

*Oiartzun*

Betiko maitasun poema bat idatziko dudala dirudi,  
izan ere,  
gaur zutaz pentsatzen esnatu naz,  
eta zutaz pentsatzen nago.  
Baina badirudi,  
maitasun poemak,  
gaur egun,  
modatik paseak daudela,  
eta Xalbador,  
edo agian Bilintxek,  
egungo belarrietan  
tokirik ez dutela.

Autopistan barrena noa,  
eta farola argiek,  
izar bihurtu nahian dabilta.  
Auto bideak,  
geure biziak gidatu nahi ditu.  
Eta tunel ilunak,  
itsaso mugagabea dela imaginatzen du,  
bere barnetik igarotzen den auto bakoitza,

naufragioan itotako  
galeoi ondoratua delakoan.

Nire poltsa beltza ireki dut,  
eta mugikorra bilatu,  
bilatu,  
bilatu...  
azkenean topatu dut.  
Klik! Batez ireki dut segidan,  
baina zure sms-rik ez.

Eta tximista argiak,  
euriari keinu egin ondoren,  
jakinarazi dio  
gaurkoz nahikoa duela,  
dagoeneko,  
autopista honetako ametsak,  
zapuzturik daudela.

Eta hau guztia idatzi dut,  
betiko maitasun poema  
idatzi beharrean.  
Gaur ere zutaz pentsatzen nagoelako,  
eta,  
maitasun poemak,  
modatik paseak daudelako.